

**CANVAS EREDUA: READEASE**  
<https://readease.cms.webnode.es>



**AURKIBIDEA:**

1. IDEIA _____	2.or
2.BALIOA _____	3.or
3. SEGMENTAZIOA _____	4.or
4. ELKARTEAK _____	5.or
5. IRABAZI ITURRIAK _____	6.or
6.KANALAK _____	7.or
7.HARREMANAK _____	8.or
8.BALIABIDEAK _____	9.or
9.JARDUERAK _____	10.or
10.KOSTUAK _____	11.or

## 9. JARDUERAK

Funtsezko jarduerak enpresaren balorezko proposamena egin, bezeroei helarazi, bezeroekiko harremanak mantendu eta diru sarrerak sor ditzan egin behar dira.

→ **Produkziozko jarduerak:** Lehenik eta behin ikastaro bat egingo dugu edizio lanetan garatzeko. Bestalde, produkzioan, hau da, ahotsaren grabaketan, arituko gara denbora askoan, gure jarduera nagusia baita.



→ **Arazo konponketako jarduerak:** Gure herriko udalak eskaintzen dituen finantza aholkularitza edo ekintzaileendako Co-Working lekuetara joan gaitzke, baina horretarako, baliabide ekonomikoak behar dira, eta beraz, etorkizunerako ideia bat izango da.



→ **Plataformako jarduerak:** Webguneko jarduerak bi dira: edukia eguneratzea eta “chat” zerbitzua. Hauek gure esku egongo dira hasiera batean, ondoren ikusiko dugu arrakastaren arabera, moldatzeko beharrik dagoen.



➤ **Enpresa barruan soilik egin daitezkeen zereginak.** Ezagutzarekin, negozioaren “know-how” delakoarekin lotuta dagoen guztia ezin da besteen esku utzi, adibidez, gure kasuan, euskaraz eginiko ahots audioak edota interpretazioa, baita gardentasuna lortzeko nola egin dugun.

➤ **Beste enpresa batzuen esku utz daitezkeenak:** Hauek izango dira adibidez, publizitate edota edizio lanak. Hauek ez dute balio erantsirik emango eta READEASE-k berak egitea pentsatuta badugu ere, jarduera hau egon daiteke beste enpresa bateren esku.

➤ **Kanpoko enpresen esku utzi ezin daitezkeen jarduerak.** Aktibo garrantzitsuak direnez gero, ezin ditugu beste baten eskutan utzi. Hauek lirateke: ahotsaren identifikazioa arrasto eza, interpretazioa, bezeroekin daukagun “chat” zerbitzua...



### LABURBILDUZ:

- Jarduera ia gehienak **taldearen erantzukizunean** daude, guk egiteko ardura eta plangintza dugulako. Hala ere, **aurrekontuaren arabera**, hau moldatzen joan gaitzke eta beste **enpresa gehiagorekin aliantzak eginez, jarduerak banatzen**.